



Esp. kodea: 2021DPRE0001  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2022 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
Hasiera data: 2021/12/01

## 2022-ko Aurrekontu proiektuari buruzko

### KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA

2022ko ekitaldirako AURREKONTU OROKORRAREN proiektuak, Barne Antolaketaren batzordeak 2021eko abenduaren 9an egindako diktameneko kopuruen arabera, 37.657.291,17 euroko zenbatekoa du. Zenbateko honi 2021eko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran aurkeztutako emendakinen ondorioz 80.000 euro gehitu zaizkio, beraz egindako zuzenketekin, onartutako aurrekontu proiektuak **37.737.291,17** euroko zenbatekoa du. Proiektu horretan **ARRASATEKO UDALAREN** beraren aurrekontua bakar-bakarrik jasota dago.

Udalaren beraren aurrekontua **egin da aurrekontuei buruz indarrean dauden legezko xedapenak jarraituta**. Ikusita zer irizpide erabili diren aurrekontu zuzkidurak kalkulatzeko, hau adierazi behar da:

**Diru sarreraren aurreikuspenetarako**, abiapuntutzat hartu da, aurrekontuaren **I., II., III. eta V. kapituluetan, 2021. urtean likidatutako eskubideen estimazio bat**, itxiera aurrerapeneko datuen arabera, **kontuan hartuta 2022rako ordenantza fiskaletan egindako aldaketek (% 0ko igoera orokorra) dakartela**, 2021eko uztailaren 13an hartutako osoko bilkuraren erabakiaren arabera, 2021ean indarrean zeuden tarifak ez gehitzea, eta eragin negatibo bat dakartela aurreikusitako diru bilketan, OHZn ondasunen amortizazioaren eraginez nahiz OHZn eta EIOZn salbuespenen eraginez. Baita ere, kontutan hartu da duela gutxi irten den plusbalioen gaineko sententziak eduki dezaken eragin negaiboa.

**Diru sarreraren IV, VI, VII eta VIII. kapituluetarako**, oinarritzat hartu da orain dagoen **informazioa**, baita ere, **beste erakunde batzuek hartutako dirulaguntza konpromisoak** (Foru Funtsean parte hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera). Dena den ere, hala badagokio, ekitaldian izan daitezkeen desbideratze negatiboak, batez ere Ondareak saltzea (Hirigintza Kargak) VI. kapitulutik datozenak, horiek baitute segurtasun gabeziarik handiena, aztertu beharko dira aurrekontuaren exekuzioa berraztertze testuinguruan eta, desbideratzearen tamainaren arabera, batez ere hura negatiboa izanez gero, saiatu beharko da beharrezkoa den aurrekontu oreka lortzen, edo gastuak murriztuz edo diru sarreraren beste partida batzuen gehikuntza osagarria bilatuz.

**Gastuen atalean**, adierazi daiteke **aurrekontuko diru izendapenak**, hasiera batean, **nahikoak direla betebeharrak galdagarriak betetzeko**, datozenak zerbitzuen funtzionamendu normaletik. Nolanahi ere, aldeak egonez gero aurrekontu beharren eta aurreikuspenen artean 2022ko aurrekontuaren partidetan, aukera dago ere kreditu globala eta aurrekontuaren exekuzio oinarriak erabiltzeko (horiek ematen duten malgutasunarekin aurrekontuetako desorekak konpontzeko); beraz, espero dut badagoela behar beste tresna ekitaldian (urtea) zehar sortu daitezkeen gastu desbideratzeak arazo handirik gabe konpontzeko.

**Pertsonalaren kapituluko gastuei** dagokienez, jarraibide eta muga zehatzik ez dagoenez, estatuko arauditik eratorritakoak (Estatuko aurrekontu orokorrak daude onartzeko fasean), 2022ko udal aurrekonturako zuzkidurak kalkulatu dira, termino homogeneousetan, gehikuntza barik 2021. urtearen amaieran indarrean zeuden lanpostuei eta ordainsariei dagokienez, horiek berraztertzeari buruz ekitaldian zehar hartu daitezkeen erabakien zain. Hala ere, partida bat sortu da ordainsarien eguneraketarako Fondo bezala, %2,3 arekin.

Gainerako diru sarrerekin estali ezin diren gastuen zenbatekoa finantzatzeko, **udalaren aurrekontuan jasota dago 1.580.000 euroko mailegu bat eskatzea**.

<b>Kodea</b>	CL21/17366	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2022/urt./03	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAN12B.2.yyvt
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN12B2.yyvt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN12B2.yyvt</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





**Esp. kodea:** 2021DPRE0001  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2022 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
**Hasiera data:** 2021/12/01

Aurrekoa kontutan hartuta honako Aurrekontua berdinduta dagoela baieztatu dezakegu, eta sarrerek gastu guztien kopurua estaltzen dituztela:

\*Sarrerak 1-9 Kapituluak: ...37.737.291,17

\*Gastuak 1-9 Kapituluak: ...37.737.291,17

Aurrezki Garbiaren magnitudea neurtzeko orduan, hau positiboa dela ikusten dugu:

+Sarrera arruntak (1-5 Kapituluak): .....33.697.991,17

-Gastu arruntak (1-5 Kapituluak) + 9 Kapituluak: ....30.219.704,66

**AURREZKI GARBIA: 3.478.286,51**

Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuei dagokionez, esan behar da, printzipioz, ez direla betetzen helburu hauek 2022ko ekitaldirako.

**6/2021 Foru Dekretu-Araua, 2021ko urriaren 19koak, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2022an aplikatu beharreko arau fiskalak eteten ditu**, ezohiko izaeraz eta 2022rako bakarrik. Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2022rako, toki erakunde bakoitzari egokitutako Defizit helburua lortzera mugatuko dira, Arrasateko Udalaren kasuan 623.634 eurokoa izanik.

Hasiera batean, Aurrekontua 1.580.000 euroko defizitarekin onartzen da. Datu hau ekitaldian zehar mantenduko balitz eta 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren likidaziora iritsiko balitz, plan ekonomiko-finantzario bat egin eta onartu beharko genuke.

Aurrekontuak onartzeko fasean, hiru helburuak (egonkortasuna, zorra eta gastu araua) betetzeari buruzko erreferentziak ikusi daitezke Egonkortasun Txostenean.

**KONPROMISO KREDITUAK:**

Konpromisu kredituak daude 2022 eta 2023 ekitaldietarako:

**5 - ETORKIZUNEN GASTUAK**

Partida	Baimendua
5 0500.601.134.00.00 2022 (4) <i>BIDEGORRI LEINTZIBAR-FORUEN PZ</i>	376.688,87
5 0500.601.134.01.01 2022 (2) <i>ETXALUZE-MAALA EKOBOULEBARD</i>	324.192,37
5 0500.781.151.00.01 2022 (3) <i>GAUTXORI ESPARRUA-HIRIGINTZA</i>	1.000.770,00
5 0501.601.134.01.01 2022 (5) <i>IGOGAILUA GALIZIA-SANTA MARINA</i>	780.000,00
Urtea 2022	2.481.651,24

<b>Kodea</b>	CL21/17366	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON	
<b>Data</b>	2022/urt./03	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAN12B.2.yyvt	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN12B2.yyvt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN12B2.yyvt</a>			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp. kodea: 2021DPRE0001  
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2022 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
Hasiera data: 2021/12/01

5 0501.601.134.01.01 2023 (6) IGOGAILUA GALIZIA-SANTA MARINA	1.566.460,67
Urtea 2023	1.566.460,67
5 - ETORKIZUNEN GASTUAK	4.048.111,91

Aurrekontuaren exekuzio arauak jasota dute, inbertsio proiektu jakin batzuetarako, geroko ekitaldien kontura konpromisoak hartzeko aukera, hori guztia baldin eta betetzen badira 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako toki erakundeen Aurrekontuen gainekoa, 22. artikuluan eskatzen dituen baldintzak, zeinak, besteak beste, ezartzen baitu etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarrean dauden konpromisoen zenbateko pilatua ezingo dela izan azken ekitaldi likidatuaren eragiketa arruntengatik baliabideen % 25etik gora.

2022. urteko Konpromiso Kredituak, 2022. urteko hasierako Aurrekontuan kontuan hartuta daude, beraz Aurrekontuaren onarpenarekin beren finantza ahalmena bermatua dago.

2023. urteko Konpromiso Kredituak 1.566.460,47 eurotako zenbateko dute, eta azken ekitaldi likidatuaren eragiketa arruntengatik baliabideen %5,03 dira (31.141.148,48 euro). Beraz, ondorioztatu daiteke ez dela espero arazorik izatea udalaren gaitasun ekonomikoari buruz aurre egiteko konpromiso horiek finantzatzeari, etorkizuneko ekitaldien konturakoak.

Azkenik, adierazi behar da, **aurrekontua onartzeko, Udaltzaren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa behar dela.** Aurrekontua onartzeko hasierako erabakia hartuta, hura erakutsi behar da jendaurrean, iragarri lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta Udaltzaren iragarki taulan, hamabost egunetan, eta epe horretan interesdunek aurrekontua aztertu ahal izango dute, eta haren aurka bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Erreklamazioen bat jasoz gero jendaurreko aldia, horiek erabakiko dira hil bateko epean.

Horixe da esateko daukadana, Arrasaten 2021ko abenduaren 15an.

## KONTU HARTZAILEA

<b>Kodea</b>	CL21/17366	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2022/urt./03	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAN12B.2.yyvt
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN12B2.yyvt">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN12B2.yyvt</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

